

5. BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

1.- Komunikazio-kanalak: Gure enpresa bezeroengana eta interesa duen beste edozeinengana iristeko web orrialde bat egingo dugu eta hau sare sozialak baliatuz zabalduko dugu.

2.- Banaketa-kanalak: Furgoneta txiki bat erabiliko dugu inguruko jantoki, jatetxe eta tabernetako hondakin organikoak batzeko.

3.- Salmenta-kanala: Honi dagokionez, aurretik aipatu dugun ibilgailu berdina erabiliz eramango diegu inguruko nekazariei hauek aurretik eskatutako ongarri naturala. Honez gain, gure ortuko produktuak baserrian bertan erosteko aukera egongo da edota gure kolaboratzaileak diren herriko zeinbait dendetan. Kolaboratzaile hauekin, enpresa sortu aurretik, akordio batera iritsiko gara aurrez-aurre hitz egin ostean.

